

Egun aldrebesa

- Kaixo, Xabi! Zelan joan da eguna?
- Bada, ez oso ondo, gaur dena gaizki atera zait, neska!
- A bai? Zer gertatu zaizu, bada?
- Bada, goizean ez du alarmak jo, eta eskolara joateko autobusa huts egin dut.
- Eta nola joan zara, oinez?
- Ez, ez, bizikleta hartu dut, baina bidean gurpila zulatu zait!
- Ui, bai zorte txarra! Berandu iritsi zara klasera?
- Ez, korrika joan naiz, eta ondo iritsi naiz. Baina gero, eguerdian...
- Eguerdian, zer?
- Bada, eguerdian, eskolatik atera naiz, eta kaka zapaldu dut.
- Benetan? Zelako eguna!
- Eta, arratsaldean, telefonoa erori zait lurrera, eta makurtu naizenean, prakak apurtu zaizkit ipurdialdean. Zer lotsa!
- Ai, ama! Besterik ez, ezta?
- Bada, bai... orain dela gutxi berri txar bat jaso dut: azterketetako emaitzak jarri dituzte, eta hiru suspenditu ditut.
- Ufa! Zelako eguna! Segi ohera badaezpada!
- Bai, gabon!